



## Merkatu Txikia Atxulondon 18/98ko auzipetuen alde

**ZIZURKIL** ▶ Jendeak egin dituen eskulanak eta ohiko materiala izango dira salgai bihartik ostiralera

**INFORMAZIOA** ▶ «Epaiketaren berri emango da, jendeak jakin dezan zer den», dio Txapartegik ▶ 5

**TOLOSA** ▶

**Kanpotarrak izan dira nagusi ohiko azokan**

Kataluniako eta Frantziako jende asko izan da ▶ 6

**TOLOSA** ▶



E. MAIZ

**Aitzol Udal Euskaltegiak 25 urte beteko ditu**

Euskalduntzea, EGA eta alfabetatzea eskaintzen ditu ▶ 6



**Gaurko bazkariarekin esango dio Zerkausiak agur 'Txuletaren festa' «jendetsu eta arrakastatsuari»**

**TOLOSA** ▶ Txuletak gora, txuletak behera. Askok dastatu ez dituzten arren, guztion ahotan izan dira azken bost egunotan, mintzagai gisa soilik izan bada ere. Bada, gaurko bazkariarekin agur esango dio Tolosak *Txuletaren festari*. Turismoarentzat erakargarri eta bertakoentzat herriko jatetxe esanguratsuen (Julian

etxea, Nicolas, Orue eta Burruntzi) menuak erdi prezioan probatzeko aukera eskaini du Zerkausiak egunotan. Kanpotar ugari hurbildu da bertara jai egunetan —argazkian, bisitari batzuk atzoko bazkarian—. «Arrakastatsua eta jendetsua» izan da, izan ere eguneroko mahai guztiak bete dituzte. **MADDI SOROA** ▶ 4

**ZOS**  
soinu  
ikastaroa  
Informatika musikala  
(Cubase)  
Grabaketa eta masterizazio  
profesionala.  
P.A. eta monitorak  
Eta abar  
943 65 35 35  
[www.soinetek.net](http://www.soinetek.net)

## UZTURRETIK ▶ XABIER TELLERIA

## Parte hartzearen ajeak



**M**odan dago. Partizipazioa da hitza. Ez dago erakunderik, handi edo txiki, bere irismeneko herritarrek animatzen ez dituenik zeregin publikoan parte hartzera. Eta horretarako bideak zabaltzen dira. Baina meha-

regiak nire ustez. Ondo dago herritarren inplikazioa bilatzea, baita orain arte gure esku egon ez diren gaietan ere, kultur ekintza batzuk edo kirol ekitaldiak antolatuz aparte. Esate baterako, gure herriaren konfigurazioa, nahiko genukeen zerbitzuen eskaintza, bide sarearen antolaketa, etab. Gure herriaren eredu definitzea etorkizunera. Gurean orain gutxi jaso dugu buzoian horrelako egitasmo batean parte hartzeko gonbita, herritar gisa

gure ekarpenak egin ditzagun dei egin ez. Sinesgarria litzaidake gonbitea; baldin eta erakundeetatik erakutsi nahi duten borondate on hori, etorkizunari begirakoa, gaur egungo zenbait gaitan ere erakutsiko balute. Gehiago badaude ere, bi adibide jarriko ditut: AHTren aurkako mugimendua aurrenekoa, eta bigarrena Tolosako Gerontologikoaren inguruan sortutako taldearena. Ondo antolatutako taldeak dira, eskaerak eta formulazioak egin dituztenak, beren

kezkak agertzen lana gogotik egin dutenak. Ez dakit zergatik baina sumatzen da kasu hauetan erakundeak nahiago dutela herritarren partizipazioa baino geldirik egon daitezela, isilik mantentzea. Partizipazioarako jarritako bide meharretik aterata parte hartu nahi dute; hori ez da gure agintarion gustukoa izaten.

Horretarako ere badute erantzunik partizipazioaren bultzatzaile berriok; eta parte hartze horren izaera soziala ahaztuta, argudio politikoekin egiten diete aurre artaldeko ardi beltz hauei: manipulaturatu egotearen deskalkifikazioarekin. Parte hartzeko gogoia edozeini kentzeko modukoa.

## KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



## hilberriak ▶

## Joxe Martin Aiestaran Iturrioz

(Juana Gartziazenaren alarguna)

ABENDUAREN 8an hil zen, 76 urte zituela, Elizkoiak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Golan bego-



Bere seme-alabak: Begoña eta Nikolas, Juanito eta Maxux, Josune, Pilar eta Jose Luis; bilobak: Naiara, Maider, Maitane, Julen, Orkatz, Aitziber, Irati eta Mattin; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizueteta arren etor zaitezela GAUR IGANDEA, arratsaldeko BOSTETAN, Berastegiko SAN MARTIN parroki elizan, GORPUBERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ gorputz beila Berastegiko hilerriko tanatorioan dago.

BERASTEGIN, 2006eko abenduaren 10a

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ESANA ▶



J. ITURRALDE  
IDAZLEA

«Pertsona bakoitza mundu oso bat da, bere duintasunarekin eta bere istorio mordoarekin»

«Kalean inoiz entzun gabeko hitzik ez dut erabiltzen liburuetan. Nire ezaugarrietako bat da hori»

Berria (2006/12/02)

DATUA ▶

317

**Stand.** Gaur amaituko da Durango 41. Liburu eta Disko Azoka eta bertan 317 erakusmahai atondu dituzte. Gure eskualdeak ere izan du tokirik eta gure idazleek ere euren lanak aurkeztu dituzte azokan. Besteak beste Joxemari Iturraldearen *Hyde Park-eko hizlaria*. Diskorik ere aurkeztu dute.

IRITZIA ▶ MARI MUJIKA (TOLOSALDEKO LAB-EKO ORDEZKARIA)

LAB sindikatuaren emaitzak, gora

**H**ego Euskal Herrian hauteskunde sindikaletan murgildurik gaude-nez eta «epe konzentratua» hasi zenetik jada hiru hilabete igaro direnez, orain arteko lehen balorazioa egiteko momentu aproposa dela deritzogu.

Ondoriozta dezakeguna, LABen aldeko apustua era nabarmen batean indartzen, sendotzen eta zabaltzen ari dela da, alegia, geroz eta langileriaren zati handiago batek bat egiten duela LAB-ekin. Sindikatuak urteetan zehar izandako konpromezu eta borrokari esker sinesgarritasuna irabazi du eta emaitzak lan horren islada besterik ez dira.

Beraz, emaitzei erreparatu gero egiten dugun lehen balorazioa oso positibotzat jotzen dugu, Irailetik hona hautatutako

delegatu kopurua oso altua izaten ari baita. Hor dauzkagu adibide moduan Lazti Garraioak, Caldereria Irurena, Ondoeta S.L, Marmoles Txindoki, Olaondo S.A, Pasteleria Unanue, Forjas Albisu, Industrias Tuerneca, Aluminos...

Azpimarratu beharra daude «Fundiciones del Estanda» eta CAF-ko emaitzak. Lehenengoan, LAB bozkatuena eta delegatu kopuru altuena atera duen sindikatu izan da (2002. urtean 3 delegatu bagenituen orain 4 eskuratu ditugu, aurreko batzordeko gehiengoari buelta emanez). Azpimarragarria, garbi erakusten baitu azken bi urte hauetan langileek pairatutako arazoan aurrean LAB izan dela sindikatu erreferentziala.

CAF-en burutu berri diren hauteskun-

deetan ere, aurrez Fundiciones del Estanda-n bezala, emaitza bikainak erdietsi ditugu. Hemen ere LAB lehen indarra izatera pasa da, zentro guztietako parte hartzeak botoen gehiengoa irabaztea suposatu duelako, delegatu kopuruari dagokionean bezalaxe (10 delegatu lortu ditugu eta beraz historian lehen aldiz, batzordean gehiengo ordezkari izan eskuratu dugu).

Beraz, Euskal Langileriak Hator gorrira mezua norberak bere enpresa edo tailerretan zabaltzera animatzen zaituztegu, hauteskunde hauetan parte hartuz, langileriaren defentsa LAB-en proiektua indartzetik etorriko baita. Mila esker guztioi gure proiektua bultzatzeagatik eta indartzeagatik.

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Etorkin adingabeen egoera nola ikusten duzu?

Argi dago adinez txikiko etorkin hauek istiluak sortzen dituztela. Ez gaitzabela engainatu! Nik neronek ikusi izan ditut: nabajazoak, borrokak... Erruaren zati handiena eurek badute ere, Foru Aldundiak gehiago du. Izan ere, lanik eta ezer egin gabe dena ematen diete: dirua, arropak... Gaztetxoak aspertu egiten dira eta edozer eginda ere inork ezer egingo ez diela dakitenez, harrotu eta edozer egiten dute. Foru Aldundiak gaztetxo hauek lanean ipini beharko litzuzke (herri lanak, gizarte lanak...eginez) eta lan hauengatik ordaindu beharko

lieke. Horrela, denbora beteko lukete, euren buruak gehiago baloratuko litzuzkete, diruaren balioa ezagutuko lukete eta ez lireratek istiluak sortuko. Orain ordea, beranduegi da. Egin litekeen gauzarik onena, istiluak sortzen dituzten gaztetxoak erreformatorioan sartzea edo euren herrietara bueltatzea da. Hona etortzen badira, errespetatu gaitzabela! Bertakoei narntzen ez dizkiegun gauzak, zergatik etorkinei onartu?

TXOMIN ▶

Adingabe hauek bizitzeko go-go dutelako datoz ona eta denok merezi dugu aukera bat. Ez pentsa istilu guztien atzean hauek daudela, euskaldunak ere hauek bezain txarrak edo txarragoak izan gaitzukeelako.

->

Hipokresia asko dago: Afrikari dena lapurtu dio («mendebaldeak»). Orain, han ezer ez daukalarik datoz hona, adin txikiak eta helduak. Adin txikiak gazteak dira eta dibertitu egin nahi dute. Seguru asko ez dute jaso gure gaztetxo («bigunek») duten heziketa bera eta errespetu gutxiago diete gure gizarteak jarritako araei: ez direlako beraien arauak. Baina soluziorik ez du: guri gustatu ala ez, etortzen segiko dute eta Tolosan ez bada beste nonbaiten, «arazoak» sortzen segiko dute: bizi egin nahi dute eta eskubidea dute hemen bizitzeko: herriak ez dira inorenak. Bertan bizi diren herritar guztienak ez badira.

ALEX ▶

Argi dago etortzeko eskubidea dutela, egoera hau herrialde

aberatsek bultzatu baitute. Baina era berean esan beharra dago hemengo bizimodu eta arauetara beraiek moldatu behar dute eta ez guk beraien arauak onartu. Hona etorritakoan egunero 8 ordu lan egin beharra dago gutxienez eta ez kalean ibili liskarrak sortzen. Hemengo bizimoduak bere alde on eta txarrak ditu, lanera datozenak gustora hartuko ditugu baina lanik egin nahi ez dutenak gera daitezela beraien herrian.

AITOR ▶

Gauza bat da beraiek gure herria etortzea, eta bestea portatzen jakitea. Ez badakite modu zibilean portatzen, etorri diren bidetik joan daitezela. Eta hori lortzeko denok batera borrokatu behar dugu.

->

hitza **txokoa** *lagunen*

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honetekin!**  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**

Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

## GASTRONOMIA ▶



Otordu bakoitzeko, 130 txuleta prestatzen dituzte Nikolas, Casa Julian, Orue eta Burruntziko sukaldariek. MADDI SOROA



Tolosako lau sukaldari aritu dira lanean, irudian, Gorrokatagi. M.SOROA



Ardo, urdaiazpiko eta gozoez dastatzeko aukera ere izan zen. M. SOROA

## Parrillaren erregina

Bost egunetan zehar idi-txuletarekin erreinu bilakatu da Zerkausia

MADDI SOROA

Haragia. Haragi errea. Ikatzaren beroarekin, idi-txuleta parrillan errea. Urrutitik usainzen da haragi errea, usaindu eta dastatu. Nafarroako zubia igaro eta ezin usainari muzin egin, ezin sudurruk itxi, ezin txuleta errea usaindu gabe geratu.

Asteazkenaz geroztik, parrilla erraldoia bilakatu da Tolo-

sako Zerkausia. Casa Julian, Nicolas, Burruntzi eta Orueko sukaldariak izan dira nagusi, parrillen nagusi. Txuleta, berri, parrillen erregina.

Pedro Ruiz, Juanjo Pascual, Javi Ugalde eta Matias Gorrotxategi izan dira parrillaren bidelagun eta 130 txuleta erre dituzte otordu bakoitzeko. Txuletarekin batera, jabugo urdaiazpikoa, Nafarroako zainzuriak, Tuterako kukuluak, Lodosako piperrak, Idiazabalgo gazta, teilak, zigarriloak eta xaxuak izan dituzte bertaratutakoek ahoaren dastamenerako.

Tolosatik ezezik, Kataluniako eta Frantziako lagun mordoa ere izan da geurean, ezin izan bestela, jan eta edana prezio onarekin batzen direnean, ezin izan bestelako erantzunik.

### iragarki laburrak ▶

#### LANA

**Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. Interesatuak deitu telefono zenbakia honetara 656 41 68 08.

## AZOKA ▶

## Kanpotarrak izan dira nagusi ohiko azokan

Jai egunetan murgildurik, Katalunia eta Frantziako jende asko izan da Tolosan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasai esnatu zen goizeko lehenengo orduetan. Denbora aurrera zihoala, giroa berotu egin zen, eta goizaren bukaera aldera jende dezente zebilen mahaien artean. Kanpotar asko izan zen atzoko azokan, Katalunia eta Frantzia aldekoak horietako asko. Bertako artean hutsuneren bat edo beste ere izan zen, oportetan joanak, seguru asko.

Eskaintza, udazkenekoa izan zen atzokoa. Hala ere, izan zen sorpresaren bat edo beste, Ibarako piperren kasua, esaterako. Ia gehiena, ordea, garai hotzeko produktuak izan ziren. Perretxiko zerrenda ere osoa izan zen, hala nola, onddoak, ziza horiak, nikaloak eta mendiko angulak.

Berdura plazan, gabonari begira, aurtengo lehenengo pazko loreak aurkeztu zituzten. Hauek, bost eta zazpi euro inguruan saldu ziren. Aipatu, hauekin batera eguberrietako apaingarriak ere izan zirela salgai.

## AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Azalea		5,00
Ziklamena		5,50
Pensamientoa		1,00
Erromeroa		4,00
Xarbota		4,00
Txinatar krabelina		2,50

#### Bertako produktuak

Nikaloa	16,00
Onddo	10,00
Zizahoria	16,00
Intxaurra	3,00
Tolosako Babarruna	8,00
Erremolatza	1,50
Artisau ogia	2,29
Ardigazta	14,00

#### Produktu ekologikoak

Dilistak	2,40
Arbi morea	4,00
Kalabaza	1,60
Kogoiola	1,00
Ahuntz gazta	3,00
Arraultzak	3,50
Azukrea	3,35

**nominamulti** | CAJA LABORAL

nominamulti-ri esker bizimodu errazagoa

Eskura ezazu eramangarri hau baldintza oso berezietan

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

ZIZURKIL ▶ POLITIKA

# 18/98ko auzipetuen aldeko Merkatu Txikia Atxulondon

Bihar hasiko da eta eskulanak izango dira salgai, besteak beste

NAIARA GARZIA

Astelehenetik aurrera 18/98ko auzipetuen alde merkatua egiten da Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean 5 egunez. Bertan jende desberdinak egindako hainbat produktu salgai egoteaz gain, ohiko materiala egongo da eskuragarri.

Astelehenean hasi eta ostiralean amaituko da Zizurkilgo merkaturia. Nekane Txapartegi, auzipetu eta arduradunetako batek azaldu duenez, «gure asmoa herriz herri merkatu ibiltaria egitea da. Hemen saltzen ez dena, behintzat Villabona eta Asteasura eramanez dugu, auzipetuak ere herri horietakoak baikara. Baina oraindik zehaztu gabe dago».

Egur tailuak, gurutzepuntuan egindako lanak eta horrelakoak izango dituzte eskuragarri bertara hurbiltzen direnek. «Pertsona ezberdinak eman dituzten artelanak salduko ditugu, jendeak borondatez eman dituenak. 30 lan inguru dira osotara».

Antolakuntzari dagokionez, arratsaldeetan irekiko dute merkaturia, 17:00etatik 20:00etara. «Bailaran lan talde bat dago, auziperatuei babesa emateaz gain ekimen ekonomikoak eta bestelakoak bultzatzea du helburu. Azoka lan talde honek antolatatu du».

Honetaz gain, Durangoko azokarako atera duten CDa ere salgai egonen da, eta orain martxan dagoen autoinkulpazio kanpainak ere bere txokoa izanen du bertan. Kanpaina

hau abian jartzeko Emile Zola idazle frantsesak orduan oso ezaguna izan zen Dreyfus kasuaren aurrean erakutsitako konpromezuan oinarritu dira, eta ordungo Frantziako presidenteari bidalitako gutun bateko esaldi ezaguna hartu dute kanpainaren lelo bezala: *J'accuse* (nik akusatzen dut). Honen helburua sinatzaileak bere burua akusatzea da, auzipetuak oinarritzko eskubideak

erabiltzearen ondorioz epaituta daudela salatzen. «Epaiketako irajinaren presentzia ere izanen da, jendeak zer den jakin dezan», dio Nekane Txapartegik. Horretarako garai batean atera zuten DVDa erakutsiko dute.

Eskualdean, 3 pertsona daude auzipetuta: Joxe Mari Olarra (Villabona), Mikel Egibar (Zizurkil) eta Nekane Txapartegi (Asteasu). 18/98 auziaren ego-

erari dagokionez, «epaiketa politikoa» dela argi utzi du Txapartegik. «Epaiketa politikoa den heinean, prozesua nola doan, erabakia ere horren baitakoa izanen da». Auziaren epeari dagokionez, luzatzen ari dela azaldu du Txapartegik. «Epaiketaren bukaera oraindik urruti ikusten dugu. Ez da segurua, baina auzia bukatzerako maiatza edo ekaina izanen dela esaten dute».

HEZKUNTZA ▶

## Gurasoen bilerak Anoeta eta Irurako ikastoletan

Urtarrilaren 15ean izango da lehenengoa, eta martxoaren 25ean amaituko dira

ERREDAKZIOA

Anoetako eta Irurako ikastoletako gestio batzordeak guraso eskolaren inguruan informazioa eman nahi duenez bilerak antolatuko ditu. Orain arte izan eman dutenen arabera talde bakarra aurreikusten dutenez talde bakarra eratu dute, 2 urteko gelatik LH2ko guraso bitartekoa.

Talde berean ariko dira Anoetako eta Irurako ikastoletako gurasoak. Sei astelehenerako egin dute deialdia: urtarrilaren 15a eta 29a, otsailaren 12a eta 26a eta martxoaren 12a eta 26a. Urtarrileko bilerak 15:15ean egingen dira. Otsailekoak, berriz, 16:45ean. Martxo bileretako ordua zehaztu gabe dago. Bilerak euskaraz egingen dira, eta batzordeak azaldu duenez, beharra izanez gero, bitartekoa egingen dira.

Ondorengo gai hauek jorratuko dituzte: komunikazio estrategiak, disziplina: zigorak eta ondorioak, kulpabilitatea...

Saioak Anoetako Herri Ikastolan egingen dira, eta Jose Francisco Amiama aditua izango da bertan, psikopedagogoa. Bertaratzten denak karpeta eta boligrafo bana eramanez behar dugu. Prezioa 16 eurotakoak izanen da, familia bakoitzeko.



# euskaltel

## ZURETZAT

Birsortzen ari gara beti. Aurrera egiten, aurrerapausoak behin eta berri emanen. Egutero, pauso oro, mugimendu oro, beti aurrerantz. Horrelakoak izan gara beti. Gure irudi berria da. Zuretzat. Kontua ez da zertarako egiten dugun aurrera, norentzat baizik.

- ▢ Zuntz Optikoa
- Finkoa+TB+Banda Zabala
- ▢ Mugikorra

AMEZKETA ▶

### Santa Luzi eguneko afarian apuntatzeko epea

Abenduaren 13an, astezkenean, Santa Luzi eguneko afaria egingen dute Amezketa eta Ugarteko emakumeentzat. Afaria jubilatuen elkartean egingen da, goiko lokalean, 20:00etatik aurrera. Larraizko Jexuxen Jazzbanda ere bertan izango da. Afaria joan nahi duenak gaur du izena emateko azken eguna, jubilatuen elkarteko goiko lokalean.

BALIARRAIN ▶

### Txan Magoa izanen da bihar, 17:15ean

Baliarraingo 2006ko Kultur Astearen barruan haurrentzako ekitaldi pare bat antolatu dituzte bihar arratsalderako. 16:15ean haurrentzako merienda izanen da, eta ondoren, 17:15ean, Txan Magoa. Bai merienda bai ikuskitzauna ere Baliarraingo Arkaitz elkartean egingen dituzte. Ekitaldi hauekin 2006. urteko Kultur Asteari amaiera emanen diote.



Txan Magoa. I. GARCIA

ASTEASU ▶

### XII. Mendi Astea, astelehenetik aurrera

Asteasuko XII. Mendi Astea bihar hasi eta igandean amaituko da. Lehenengo ekitaldia 20:00etan izanen da bihar, udaletxeko zine aretoan. Bertan Gashermbrum IIren inguruko emanaldia izanen da ikusgai. Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkolaren eskutik. Asteazkenean, beste bat eskainiko dute, ordu berrean. *Bidaiak: Vietnam, Laos eta Kamboia* lemapean.

ANOETA ▶

### Ipuin kontaketa egingen dute etzi udal liburutegian

Abenduaren 12an, asteartearen, umeentzako ipuin kontaketa egingen dute Anoetako udal liburutegian. Ekitaldia Anoetako Udalak antolatuko du, 18:00etan izanen da eta behar bezala egiteko puntualitatea eskatu dute. Itziar Zubizarreta ariko da ipuin kontaketa. Ekitaldia 6, 7 eta 8 urteetako umeek dago zuzendua, hau da, LH1, LH2 eta LH3 ko ikasleek.

EUSKARA ▶

# Euskararekin kalera

Datorren ikasturtean, Aitzol Udal Euskaltegiak 25 urte beteko ditu; urte hauetan guztietan, euskara irakasteaz gain, euskal kulturaren berri eman dute



Aitzol Udal Euskaltegiiko arratsaldeetako talde bat euskaraz, lanean. ENERITZ MAIZ

**MIKEL UZKUDUN** ▶ AITZOL UDAL EUSKALTEGIKO IRAKASLEA

## «Bertako betiko erdaldunek baino jarrera hobea izaten dute etorkinek»

Aitzol Udal Euskaltegiako irakasle den Mikel Uzkudunekin izan gara, ikasleen eta euskara irakasteko metodoen berri jasotzeko asmoz.

### Zer moduz hasi da ikasturte berria?

Balorazio polita da, positiboa. Badakigu ez dela urte batetik bestera izugarriko aldaketarik izango. Nahiko egonkortuta dago ikasle kopurua, azken lau bost urte hauetan, 250 ikasle inguru gabiltza eta horri eusten diogu. Bestetik, urtarrila otsalean, berriz irekitzen dugu izena emateko aukera. Klasera etortzen direnen kopuruak behera egin badu ere, autoikaskuntza hautatu dutenak gehiago izan dira.

### Nola funtzionatzen du autoikaskuntza metodoak?

Baliabide honek ikasleari autonomia ematen dio eta berak nahi duenean lan egiten du. Guk lan bat jartzen diogu eta etxean, lanean, euskaltegian edo ongi datorkion lekuan egi-

ten du. Ez du egun zehatzik, konpromisoa hartu eta epe bat zehazten da irakaslea, tutorea eta ikaslearen artean. Horrela, berak lanak egin ahala, zuzentzeko ekartzen ditu. Bi atal ditu: paperean, guk prestatutako materiala dago, eta DVD edo CD-*ez lagunduz* lantzen da entzumena, eta bestetik ordenagailuko programa dago, *Boga* deitzen dena.

### Oraindik asko egongo da egiteko, ezta?

Hasiera hasieran gaude, hastapenetan. Materialik ez dago eta dena sortu egin behar da eta horrek lan gehigarri bat eskatzen du. Kasu honetan Udalak ere ahalegin berezi bat egin du zeren-eta administrazioak ez du gehiegi laguntzen; orain badi-*dirudi zerbait* hasi direla edo hastekotan direla, arrakasta handia lortzen ari dela ikusi dutelako.

### Bestelako materialari dagokionez esatekorik bai?

Klasera etortzen direnentzako

egina dagoen materiala izugarria da. Hogeita lau urte hauetan lan izugarria egin da. Guk ez dugu testu libururik, guk geuk prestatutako materiala dugu, guretzat erabilgarria izateko. Bakoitzak egin behar izaten du bere aldetik, batetik eta bestetik materiala hartu eta egokituz.

### Nolakoa da etorkinen jarrera?

Kanpotarrak beraiek konturatuzen dira, hemen gaztelaniaz gain, beste hizkuntza bat hitz egiten dela eta ikasi beharra dagoela. Badakite euskara jakitea eskatzen dela eta lana aurkitzeko ere ongi etorriko zaiela, eta bertakoekin komunikatzeko ere beharrezkoa dela. Sarritan, alde aurretiko jarrera, bertakoena baino hobea izaten du atzerritarrak. Bertako batzuek, pentsa zenbat urte daramaten hemen bizitzen, eta oraindik ez dira euskaltegiara inguratu ere egin. Ez zaie burutik pasa ere egiten.

ENERITZ MAIZ

**A**itzol Udal Euskaltegia jendea euskalduntzeko lanean hasi zela, 25 urte beteko dira hurrengo ikasturtean. Aurtengoan ere, beste urte batez, hamahiru irakasleek, gogotsu hasi dute ikasturtea.

Euskalduntzea, alfabetatzea eta EGA dira eskaintzen dituzten aukerak. Pertsona bakoitza, helburu ezberdinekin inguratzen da euskaltegiara. Euskara irakasteko bi baliabide erabiltzen dituzte: betiko moduan, egunero egunero euskaltegiara joanez ikastea, edota, norberak bere denbora eta beharren arabera etxean ikasten du, euskaltegian, tutore bat izaten duelarik. Azken hiru urteetan, bigarren aukera honen alde egin duen gero eta jende gehiago dago. Ohiko ikas-*metodoa* aukeratzen duenak, astean hamar ordu sartzen ditu euskaltegian, aldiz, autoikaskuntzaren aldeko apostua egiten duenak, hamabostean behin hamabost ordu sartzen ditu. Era batean edo bestean, benetan euskara ikasi nahi duenak, ikasi egiten du baina astean sartzen den ordu kopuruak eragin handia du euskara ikasteko garaian.

### DATUAK ▶

#### KOPURUA

**Eskoletan.** 130 ikasle.  
**Autoikaskuntzan.** 100 ikasle.

#### JOERA

**Eskolak.** Urtetik urtera, beherantz doa ikasle kopurua.

**Autoikaskuntza.** Azken hiru urteetan gorakada nabarmena izan du.

#### IZEN-EMATEA

**Urtarrila.** Izena emateko aukera irekitzen dute.

Euskaltegian egiten den lana ez da soilik euskara irakastera mugatzen. Euskara irakasteaz gain, euskal kultura eta ohituren berri ematen zaio bertaritzen den orori. Eta euskaltegian bakarrik ez dira egoten ikasleak, motibazioa pizteko, euskara lantzeko modu ezberdinak erabiltzen, saiatzen dira. Afari eta egun pasak antolatzen dituzte, besteak beste.

### Euskaltegiak gain

Eskualdeko herrietan ere, taldeak osatu eta euskara erakusteko aukera eskaintzen dute baina joan den urtearekin alderatuz gero, aurtun beherakada txiki bat eman da. Aurreko ikasturtean, Asteasu, Aduna eta Alegian zituzten taldeak eta aurtengoan, Asteasun bakarrik lortu dute taldea mantentzea. Adunan eta Alegian aha-*legina* egin badute ere, taldeak ez dira aurrera atera. Orain, Berrobiko Udalarekin daude harremanetan, bertan talde bat osatzeko asmoa baitute. Talde hauetan, etorkinen presentzia da nagusi eta poztetokoa da; herri txikietan, Udalaren aldetik ere kezka azaldu dute, etorkinak ugaritzen ari direla eta.

Enpresa munduan ere lan handia egiten dute, Panelfisana eta Sam-en dituzte ikasleak eta aurtengoan, talde berri bat osatu dute Anoetako Natur Gassen.

Bestetik, Osakidetatik bertatik eskatu diete, euskara ikasteko prest dagoen, bederrtzi laguneko talde bat osatuta dutela eta, klaseak ematera joateko. Administrazio saileko jendea da, beraien euskarazko trebakuntza, eta batez ere idazmena, hobetzeko asmoa dutenak. Hauetako berriak, bertako irakasle bat joaten zaie egun erdiz klaseak ematera.

Urte berriarekin batera, euskara ikasi, hobetu edota tituluren bat lortu nahi duenak, oraindik aukera badu, otsailetik aurrera, euskaltegiara joateko. Berritua, izena emateko aukera eskaintzen baitute.

SILVIA BALEZTENA ▶ KARLISTA

# «Franco gaizki portatu zen gurekin, horregatik gara antifrankistak»

Aita eta osaba buruzagi karlistak izan ziren Gerra Zibilean, Mola generalarekin negoziatu zuten; bi lehengusu erreketek hil zituzten gerran

JOXEMI SAIZAR

Leitzako plazan, udaletxearen parean duten etxe ederrean hartu du HITZA Silvia Baleztena Abarrategik (Iruñea, 1929). Atzean beste bi etxe dituzte bere lorategi eta zuhaitzekin.

## Zein harreman duzue Leitzarekin?

Aitona bertakoa zen eta etxea aspaldidanik daukagu. Urtero uda eta udazkena bertan pasatzen dugu. Etxe zaharra eta handia da eta zaindu egin behar da. Eguberrietarako Iruñe-ara joango gara negua eta udaberria pasatzera.

## Zein zen aita?

Aita Ignacio eta bere anaia Iruñean jaio ziren. Aitak Muthiko Alaiak peña sortu zuen, egunkarietan idazten zuen, erabateko antinazionalista zen, baina euskara asko gustatzen zitzaion euskaldunak garelako, nahiz eta askok euskaldun txarrak deitu. Oso karlistak izan gara familian. Franco oso gaizki portatu zen karlistekin, erabat anulatu gintuelako. Bere alderdia sortu zuen, Palange Tradicionalista y de las JONS, eta Circulo Carlistak itxi zituen. Horregatik izan gara beti antifrankistak, baita Francoren garaian ere, antifrankista izan behar zenean. Orain gazteek frankista deitzen didate kalean. Ez dakite ezer.

## Zein oroiemen duzu Errepublikak garaiaz?

Oso txikia nintzen. Osaba Joaquin, zaharrena, ezkongabea, diputatua izana Gorteetan, karlisten buruzagi erregionala zen eta aita zinegotzia eta diputatu forala izana zen karlisten alde-rik. Errepublika hasi zenean 1932an, Iruñeko gure etxea erretzen saiatu ziren. Oraindik han bizi gara. Iruñetik bidali egin gintuzten familia osoa, «vagos y maleantes» legearengatik, karlistak izateagatik, besterik ez. Pentsa, askatasun garaian ez zegoen hainbesteko askatasunik errepublikazale ez zirenentzat. Donostiara joan ginen. Gero gobernadorea aldatu egin zuten eta itzuli ginen. Oso gaizki pasatu genuen. Elizak babesteko komando batzuk osatu zituzten karlistek.

## Nola gogoratzen duzu gerraren hasiera?

Urtero bezala Leitzara etorri



Silvia Baleztena Leitzako etxean duten Tercio San Miguelen bandera espainiarriaren aurrean. JOXEMI SAIZAR

## AITA

«Altxamenduaren egunean berak atera zuen bandera espainiarra Iruñeko kaleetan zehar»

ginen udan, aurrena ama eta seme-alabak. Helduak beranduago etortzen ziren, san Tiburtzio jaietarako egoteko, abuztuaren 11rako. Egun batean, plazan jolasten ari ginela, jende asko ikusi genuen txapel gorriarekin eta ikaragarri hunkitu ginen. Erreketek zirela entzun nuen, kamioi batean Iruñetik etorriak. Ohikoa zen gure etxean karlistak eta erreketek entzutea. Aita erreketen buruzagia zen eta etorri zen. Tolosako eta Donostiako karlistekin hitz eginda zeuden. Tolosan karlista oso onak zeuden. Aitak zuzenean Tolosara joan nahi zuen, baina Tutor buruzagi militarrek esan zuen Iruñe-ara itzuli behar zela. Gero berriro etorri ziren. Tolosatik eta Donostiatik mendiz karlista asko etorri ziren, han porrot egin zuelako altxamenduak. Denen artean Tercio San Miguel osatu zuten. Bere bandera hemen dugu oraindik etxean gordeta. Gero Bartzelonaraino iritsi zen Tercio San Miguel,

## OSABA

«Leitzan edozeini galdetuta, denek esango dizute jende asko salbatu zuela fusilamendutik»

baina Yagüe generala sartu bere falangistekin, tirorik bota gabe, Francok esanda. Leitzako bi mutilek bere bizikletak hartu eta Berastegira joan ziren Leitzan libre zegoela abisatzera. Hartu eta koartelean sartu zituzten, baina ez zituzten fusilatu. Osaba eta aita joan ziren Leitzako koartelera, guardia zibilarengana, eta frontera eraman zituzten, ezer ez gertatze-ko. Largo familiakoa zen bat, gerran hil zen, eta bestea Periko Sagastibeltza Zaldar.

## Zer gertatu zen ondoren?

Berastegira joan, Urton izan zuten lehen hildakoa, eta Tolosara iritsi ziren. Kostatu zitzaizkien Tolosa hartzea.

## Zein izan zen aitaren papera?

Karlistek Mola generalarekin gerra aurretik izan zituzten harreman guztietan aita eta osaba Joaquin tartean zeuden. Altxamenduak frakasatu egin zuten, zertarako ingainatu behar dugu, Espainiaren zati gehiena ez zelako altxa. Bakarririk Galizia, Nafarroa, Araba,

## GERRA

«Amaiera alaitasun handia izan zen eta eromena; gerraostea garai tristea, etxeetan norbait falta zen»

Burgos, Sevilla eta ez dakit zein gehiago. Franco Afrikan altxatu zen, baina uztailaren 19an. Hemen 18an. Nafarroan ez zuten Franco ezagutzen, frankistak ez ginen. Aitak atera zuen bandera Iruñeko kaleetan, Txapitela kaletik Alde Zaharretan altxamenduaren egunean. Aita fronte guztietan zebilen. Lehen egunean ama Leitzan utzi zuen sei seme-alabekin. Gerra hasi zenean buruzagi eta gero gerrako junta karlistako burua izan zen. Karlistak ez ziren errepublikaren kontra atetara, zeuden injustizia guztien kontra baizik. Espainiak Kuba bezala bukatuko zuen, Errusiaren kolonia bat bezala. Armada asko ez zen altxatu.

## Nola izan zen gerra Leitzan?

Oso lasaia. Tirorik ez zen izan. Tarteka zaurituen bat edo hildakoren bat ekartzen zuten frontetik. Lehena Zabaleta bat izan zen, Errezuma baserrikoa. Fusilaturik ere ez zen izan. Hildako bakarrak elizako oroitarririk zerrendan azaltzen diren

erreketek eta soldaduek dira, 30 bat edo, beste aldekorik ez zelako izan. Nazionalista asko ziren Errepublika. Gurutzeak kentzen ibili zirenen zerranda egin zuten goardia zibilek eta kamioi batean Iruñe-ara eraman behar zituzten hiltzera, baina osabak esan zuen inor ez zela aterako Leitzatik. Leitzan edozeini galdetuta denek esango dizute osabak jende asko salbatu zuela.

## Zein izan zen zuen egoera?

Amak gaizki pasatu zuen sei seme-alabekin. Gosea zegoen, jatekorik ez zegoen, lurrak landatu gabe zeuden, seme-alabek landatu zituzten, haurrek. Lehen urtea Leitzan pasatu genuen, Iruñeko etxea Bilboko senitarte batzuei utzita. Elur asko egin zuen, portuak itxi eta ezin genuen atera. Anaiak pulmonia handia hartu zuen, ia hil zen, eta lehengusu bat ere bai.

## Gero Iruñe-ara joan zineten.

Iruñean ere bonbardaketak izan ziren. Sirenak etengabe jotzen zuen. Babestokira joaten ginen, soto batera. Hildakoa izan ziren, haurrak eta emakumeak. Gerrako umeak esaten dutenean grazia egiten dit. Gu ere gerrako umeak izan ginen, asko sufritu genuen. Orain ez dira gogoratzen. Haiek Errusiara boltsikoak beteta joan ziren, urrez beteta barkuak.

## Zuen familiako norbait hil al zen gerran?

Bai, bi lehengusu, erreketek, 19 urterekin. Bat 1936ko irailean hil zuten, Madriletik gertu, eta hurrengo urtean bestea. Juan Jesus Jaurrieta zen bat, Txan deitzen zioten. Leitzara euskara ikastera etorri zen eta negu osoa pasatu zuen. Bere anaia Javier zen. Anaia hil zenean Francoren eskolatan jarri zuten, babesteko. Gaixotasun batez hil zen. Gero nire lehengusua Iruñeko bonbardaketan besoan zauritu zuten.

## Nola hartu zenuten gerraren amaiera?

Alaitasun handia izan zen eta eromena. Festa eta kanpainak meza asko izan ziren.

## Eta gerraostea?

Garai tristea izan zen, eskolatan umezurtz asko zegoen edo anai-arreba hilak zituztenak. Etxe guztietan norbait falta zen. Gosea ere bazen. Gerra ondoren ahaztu nahi izan zen asko. Ez zen hitz egiten. Falangeak desberdinak ziren, oso harroak, diktadoreak. Karlistak tradizionalistak gara, faszistamoa-reenkin zerikusirik ez dugu.

## OHARRA ▶

Elkarrizketa osoa eta Gerra Zibilar buruzko sail honetako artikulua gure webgunean ikus ditzakezu.

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Amasa.** Baserrien eta historia eta arkitektura irteera-hitzaldia. Egitaraua: 09:30ean, irteera Amasako plazatik; hainbat baserriren historia eta arkitektura ezagutzeko; 12:00etan, hitzaldia Amasako Kultur Etxean. Juantxo Mauleon Aranzadi zientzia elkarteko arkeologoaren eskutik: *Amasako baserrien historia eta arkitektura.*

**Asteasu.** Bihar XII. Mendi Astearen baitan, 20:00etan, Gashermbrum II proiektzioa, udalbeko zine aretoan, 20:00etan, Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkolaren eskutik.

**Baliarrain.** Bihar, Kultur Astea bukatzeko, Arkaitz elkartearen merienda egingo dute 16:15ean. Ondoren, Txan Magoa izango da haren saioarekin, 17:15ak aldera.

**Tolosa.** Oderizera mendi irteera eta ondoren urte bukaerako babarrun jatea antolatatu du Alpino Uzturrek igandera. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5. 943 652789).

**Tolosa.** Iñaki de Juana euskal presoari elkartzasuna adierazteko eta eskualdeko presoaren egoera salatzeke gose greba egingo ari dira 12 lagun musikariek eskolan. gaur amaituko dute manifestazio batekin, 19:30etik aurrera, Triangulo plazan.

**ZINEMA**

**Tolosa.** 17:00etatik aurrera, *Polleke* filma ikusteko aukera izango da, Leidor aretoan. Sarrerak 2 euro balioko du.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leiza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
 Tolosa. Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

**Bihar**  
 Leiza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
 Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Hitza* hegana (errepikapena).

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazteko esanetan eta iritzien erantzukizunik.

# Presoen aldeko gose greba

**TOLOSA ▶** Asteazken goizean hasi zuten gose grebari gaur iluntzean emango diote amaiera, eta gero, 19:30ean, manifestazioa egingo dute



11 gose grebaliari atzo, Tolosako musika eskolan; gaur amaituko dute eta 19:30ean manifestazioa egingo dute N. GARZIA

**ERREDAKZIOA**

**A**steazkenean 08:00etan hasi zuten gose greba gaur iluntzean amaituko dute, 19:30ean. Osotara 5 egun egin dituzte, Tolosako musika eskolan, ura edanez soilik. Grebaliariak gose greba «ondo» eraman dutela azaldu dute. 11 lagunek hartu dute parte gose greban, eta hauen artean tolosarrak, ibarrarrak, billabonatarak eta zizurkildarrak daude. Hasiera baten 7 lagunek parte hartuko zutela esan



Tolosako musika eskolan jarritako pankarta bat. N. GARZIA

bazuten ere, 11 lagunek hartu zuten azkenean gose greba egiteko erabakia. Ekintza honek «eskualdeko lau preso politikok dagoeneko haien kondanaren hiru laurdenak bete dituztela eta orokorrean euskal presoek jasaten dituzten eskubideen urraketa salatzea» du helburu. Gaur 19:30ean egingo den manifestazioarekin emango diote amaiera ekintza honi. *Errepresio politikorik ez: baldintza demokratikoak orain izango da honen leloa.*

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Jokin Ormaetxea Odriozola (Tolosa). Bihar 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Eneko Galarza Bengoa (Tolosa). Bihar 3 urte. Dagoeneko otsuari beldurrik ez. Etxekoan partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...